

T I T I
LUCRETII CARII

DE

RERUM NATURA.

LIBER II.

SUAVE, mari magno turbantibus æquora ventis,
E terra magnum alterius spectare laborem;
Non quia vesari quemquam ñ jucunda voluptas,
Sed, quibus ipse malis careas, quia cernere suave ñ.
Suave etiam belli certamina magna tueri,
Per campos instructa, tua sine parte pericli;
Sed nil dulcius est, bene quam munita tenere
Edita doctrina sapientum templa serena;
Despicere unde queas alios, passimque videre
Errare, atque viam palantis quærere vitæ;
Certare ingenio; contendere nobilitate;
Noctis atque dies nisi præstante labore
Ad fummas emergere opes, rerumque potiri.

O miseris hominum mentes! o peccora creca!
Quilibus in tenebris vitæ, quantisque periculis

DE RERUM NATURA

TITUS LUCRETIUS CARUS

HIZKUNTZA KLASIKOAK -LATINA

UPV DONOSTIA

NAHIA SANTANDER

Sarrera.

Lan honetan zehar, Lukrezioren *De Rerum Naturam* izeneko obraren inguruan aritzea da nire helburu nagusia. Horretarako lana ataletan banatuko dut ulergarriagoa egite aldera obraren nondik norakoa. Bi atal nagusi izango ditu: alde batetik, Lukrezioren obrarekin harreman zuzena ez daukaten gaiak aurkeztuko ditugu, betiere haren doktrina hobeto uler dezagun. Lehenik, autorearen inguruko informazio orokorra eta bigarrenik, testuinguru politiko-soziala. Bestetik, obraren inguruko ikuspegi orokor bat eskainiko dugu, gai konkretuagoi helduko diegu eta, azkenik, hausnarketa pertsonala eskainiko dugu. Azkenengo honi dagokionean, esan beharra dago saiatuko naizela (nahiz eta lotura arbitrario xamarra izan daitekeen) materialismo mekaniko honen eta egungo materialismo dialektikoaren funtzioak lotzen, batez ere gizakiak pairatzen dituen zapalkuntzetatik burutu behar duen askapen prozesua azpimarratuz.

Kontuan izanik lana antolatzerako orduan informazio gehiegi neukala eskuartean, maiz oso argi geratzen ez zitzaidana autorearen konplexutasuna dela eta, Francisco Socasak obraren inguruan egindako apunteak eta azalpenak aintzat izatea erabaki dut, berak erabilitako eskema antzeko bat jarraitu izan dudalarik. Gainera, irakurtzen hasi bezain pronto, konturatu nintzen Erromatar Literatura ulertzeko, ezinbestekoa nuela Greziar tradizioaren inguruko ikuspegi oinarrizko bat izatea. Eta horretan sakontzea izan zen nire lehenengo pausua. Horrenbestez, lan honetan, asko izango dira autore presokratikoei egindako erreferentziak, hauek gabe, Lukrezioren muina barneratzea nahiko zaila izan baitaiteke.

Lukreziori buruz.

Bigarren mailako iturriaren fidagarritasun urria kontuan izanik, zalantzak daude autorearen jaiotze eta heriotza data era ziur batean finkatzeko. K.A I mende hasieran jaio omen zen eta mende horren erdialdean hil. Bere jatorria ere ez dago erabat garbi: batzuk Campania izeneko lurraldekoa zela defendatzen dute, bertan Epikureismoak islapen handia izan baitzuen; beste batzuk, ostera, Catulo eta Virgilioren lurralde berekoa zela argudiatu dute, Galia Zisalpinakoa hain zuzen ere. Hipotesiak hipotesi, argi dagoen gauza bakarrenetarikoa Erroman bizi izan zela da, aurrerago aztertuko dugun bezalaxe, autorearen poema Erromako garai horren testuinguruaren isla baita.

Bere klase sozialari dagokionean ere, suposizio ugari besterik ez dago. Badaude batzuk Familia noble batekoa izan zela argudiatzen dutenak, Lucretii abizeneko magistratuak aurkitzen baitira Fastoetan. Baina, nahiz eta gens Lucretia familia ilustratua izan zitekeen, badaude herri xeheko kideak abizen honekin. Aitzitik, bere izenordeari erreparatuz gero (Carus), ahal dugu pentsatu ere liberto bat zela, honako izena oso ohikoa baitzen esklabuen artean.

Haren heriotzaren inguruan ekarpen argi eta zurrnak egitea nahiko zaila suertatu zaie adituei, kondaira ugari topatu baitira honekin lotuta. Batzuen aburuz, maitasunak itsuturik, zoratu egin zen bere buruaz beste egin arte. Nire ustez, benetako arazoa dator hau bezalako hipotesi frogatu gabeek zikintzen dutenean hain haundia izan den autore baten obra. Hain sakona den auzi honek, gure eskuetatik ihes egiten du, baina ez digu oztopatuko lanaren inguruko hausnarketan aurrera pausuak ematen jarraitzea.

Autore honen ekarpen filosofikoei dagokionean, ezin dugu ahaztu Epikurok Lukreziorengan izan zuen eragina. Epikureismoak, Lukreziok egin nahi duen bezala, doktrina sotereologikoa eskaini nahi dio hartzaileari, hau da, sufrimendua, heriotzari beldurra eta, oro har, gorputzari gaitza ekartzen dion edozerretatik askatzeko bide bat. Gaitzaren ordez, bizitza ona eta zoriontasuna bilatu nahi zituen, plazerra handituz eta mina gutxituz. Helburu handi hauen zerbitzura fisika eta logika kokatzen zituen eta, filosofia, bere aldetik, bizitza zorionsuaren lanketan zentratuko litzateke. Zentzu honetan, Lukreziok, bere maisuak egin zuen bezala, bere obra gutzia helburu sotereologiko honen mesedetan

jartzen duela esan dezakegu. Dena den, obraren muinean modu sakonagoan murgiltzean, aipaturiko eragin hau xehetasun handiagoz aztertuko dugu.

Arestian esandakoarekin jarraituz, Epikurok egin zuen eran, idazketari berezi biziko garrantzia egotzi zion. Halere, latinera itzuli izanak tradizioan zehar grekoz idatzitako hori, puntu batean aldendu egin zuen bere maisutik. Izan ere, Epikuroren hitzetan: “bakarrik grekoz hitz egiten dutenak ailegatzen dira benetan jakintsuak izatera”. Era berean, bertsoz aurkeztu izanak teoria filosofiko bat ere ezberdintzen du bere maisuaren doktrinatik. Homeroren antzera, oso luzea zen poesia bat ekoitzi zuen (7000 bertso baino gehiago) baina, berak ez bezala, gai filosofikoak kokatuz erdigunean. Gauzak horrela, Epikurok poesia edukiaren mesedetan jarri nahi izan zuen, gai korapilatsuak erakargarriagoak egite aldera irakurleari, garai helenistikoan poesia ematen ari zen bira jasoz.

✚ Testuingurua

Lukrezioaren testuingurua Erromatar Errepublikaren gainbehera izan zen (K.A 509- 27), hortaz, oso garai gatazkatsua bizi behar izan zuen, tentsio ekonomiko eta sozial ugariarekin. Nahiz eta historian ez dugun gehiegi sakonduko, autore latinoaren obran agertzen den pasarte batekin honako egoera latza irudikatzea gustatuko litzaidake, testuingurua eta obraren arteko antzekotasunak presente izan ditzagun.

Porque nosotros no podemos con serenidad llevar a cabo nuestra obra en un tiempo aciago para la patria, ni el retoño famoso de Memio, en tales circunstancias, faltar a la común salvación (l 39-41).

Dena den, atal honetan kulturaren arloari erreparatzea gustatuko litzaidake, izan ere, Errepublika hasieran, greko-zaletasuna gailendu egin zen, erromatar eta greko tradizioak uztartzeko asmoz. K.A 155 urte aldera, Teveeko enbaxada hiru filosofo grekoz osatu zen (Babiloniako Diogenes, Cireneko Karneades eta Paselisgo Kritolao, honakoa hartzen delarik Erromako hirian greziar filosofiaren presentziaren hastapeneko data gisa. Hauen artean, doktrina epikureoa, estoikoa, eklektikoa eta baita platonikoaren presentzia aurki ditzakegu.

Epikureismoari dagokionean, Alceo eta Filisco izeneko filosofoek sortu zuten Eskola Epikureoa Lucio Postumioaren kontsulatua indarrean zegoenean (K.A 154), Epikuroren heriotza baino ehun urte beranduago.

Beste ataletan defendatuko dugunaren harira, ez da harritzekoa Epikureismoak Errepublika garaian jasan izan behar zuen errepresioa. Izan ere, jainkoen parte-hartzea jarduera gizatiarretan erabat ukatzen zuen, aurreko tradizioari, puntu batera arte, ezetz esanez. Bestetik, eta tradizioaren ukazioaren ildo beretsutik, Estatuan parte hartzea gutxitu nahi baitzuen, doktrina honen helburua, bizitza zoriontsu eta baketsu bat eskuratzea zen. Logikoa da pentsatzea, hortaz, Errepublika garai batean halako argudio bat ez zela ondo ikusita izango, hortik ondorioztatzen den errepresio guztiarekin.

Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar Epikureismoa, doktrina bezala, oso zatituta zegoela eta, honenbestez, bereizi beharko genukeela herri xehearen baitan indarrean zegoen epikureismoa eta goi-mailakoen artean gailenduta zegoen horren artean. Azkenengo honetan, Lukrezio koka genezake, edozein beldurretik aske izango den bizitza baten alde eginez, *hedonea* handituz.

✚ Liburuari buruz

○ Izenburua, data eta norentzat.

Lehenik eta behin, aipagarria *De rerum natura* izenburuak Anaxagoraren *Peri physeosen* izenburuaren egiturari jarraitzen diola. Lehenengo liburuko 832 paragrafoan hitz egiten digu honetaz hain zuzen autoreaz, aipatuz grekotik latinera presokratikoen teoriak pasatzeak zein zailtasun dakarren hizkuntzaren aldetik. Honek, argi eta garbi uzten du zein den autorearen helburua: Presokratikoen physis-aren inguruan egindako teoriak latinera itzultzea.

Aurreko atalean aipatu dugun bezalaxe, datak finkatzeak hain informazio zatikatuta dagoenean holako autore klasikoen inguruan nahiko gatzu suertatzen da. Adituek 54 urtean kokatu dute liburuaren data, Zizeronek bere anaiari egin zion gutun batean aipatzen baitu Lukrezioen poema bera.

Hartzaileari dagokionean, Gayo Memio izeneko aristokrata batentzako idatzi zuen, poema guztian zehar interplatzen duelarik.

○ Eraginak: kanona, modeloa eta iturriak

Lehenik eta behin, Epikuroren testuekin lotu beharra daukagu Lukrezioen obra, berak argi eta garbi adierazten baitu bere helburua dela Epikuroren obra hurbiltzea irakurlearengana. Baina autore latindarrak ondo adierazten duen bezalaxe, honako lan hau ez zitzaion inondik inora erraza suertatu. Alde batetik, latinera itzuli nahi izateak, aurreko atalean esan moduan, zenbait arazo ekarri zitzaizkion gure Lukreziori: bere maisuarekiko urruntasuna, izan ere, Epikuroren hitzetan, bakarrik grekoz hitz egiten dutenak heltzen baitira jakintsu izatera eta, honekin batera, itzultzeak zailtasun ugari eragin zituen hizkuntzaren aldetik. Esaldi honen bidez argi eta garbi adierazi zuen zailtasun hau Lukreziok:

Y a mi comprensión no escapa que es difícil aclarar en versos latinos los oscuros hallazgos de los griegos sobre todo cuando en muchos casos tenemos que manejarnos con palabras nuevas a causa de la pobreza de nuestra lengua y la novedad de los temas (I, 136-139)

Bigarrenik, filosofo klasiko honen obraren antolamenduari dagokionean, Diogenesek gerora egindako Epikuroren obraren bilketan, lau atal bereizi zituen: lehena sarrera modukoa eta beste hiru (fisikari buruz Epikuroren I, II eta V liburuak bezala; meteorologiari buruz, Epikuroren VI liburuaren moduan eta, Etikari buruz, Epikuroren obra guztian zehar ikusten dugun bezalaxe). Baina Epikuroren obra osorik heldu ez zaigunez, esan dezakegun bakarra da Lukreziok Epikurorengandik etorritako idatzi guztiak jaso, batu eta berridatzi zituela. Honekin batera, Tradizio Klasikoak askotan dakarren zailtasun bat honakoaren inguruko iturri urria dela eta, hortaz, ezin dugu ulertu Lukrezio eta Epikureismoaren arteko lotura kausa-efektuzko harremanen antzera. Eragina dagoela ezin uka, baina betiere erlatibismo puntu batekin ulertuta. Hala eta guztiz ere, obran aurkituriko pasarte batzuk mahai gaineratzea gustatuko litzaidake, Epikurori zuzentzen baitzaizkio eta, orain arte aipatutakoa oso ondo laburtzen baitute.

Quando todo el mundo la vida humana permanecía ante nuestros ojos deshonrosamente postrada y aplastada bajo el peso de la religión, que desde las regiones del cielo mostraba su cabeza amenazando desde lo alto a los mortales con su visión espantosa, por primera vez un griego se atrevió a levantar de frente sus ojos mortales, y fue el primero en hacerle frente; a él no lo agobiaron ni lo que dicen los dioses ni el rayo ni el cielo.... (I 59- 68)

¡Oh tú que entre tinieblas tan grande fuiste capaz el primero de alzar lumbre tan clara e iluminar las ventajas del vivir, detrás de ti voy, oh gala de la raza griega, y sobre tus trazas planto y hundo ahora la huella de mis pies, no es tanto por afán de rivalidad como por carió que ansíe imitarte! (III, 1-5)

Tú padre, eres el descubridor de la realidad, tú nos suministras paternaes mandatos y en tus papeles, insigne, (...) de todos tus dichos espléndidos igualmente nosotros nos vamos sustentando, (III, 5-10)

¿Quién es capaz de componer con recio aliento un poema conforme a la grandeza de estas materias, o quién, una vez dilucidadas, puede tanto con la palabra que alcance a trazar el elogio que piden los merecimientos de quien nos dejó tales recompensas formadas y buscadas en su pecho? (V 1-5) Y yo siguiéndole los pasos, al tiempo que sigo sus explicaciones y con mis palabras enseño según qué acuerdo cada cosa se ha formado (V 55-56)

Beste alde batetik, ezin dugu murriztu filosofo klasikoengandik jaso zuen eragina Epikurora bakarrik. Doktrinaren aldetik antzekotasunak dira, esan bezala, baina latinez eta hexametroetan idatzi izanak neurri batean aldentzen du Lukrezio bere maisuarengandik. Halaber, filosofo grekoen artean, badaude beste autore batzuk hexametroz osaturiko poesia konposatu zutenak, hauen artean Xenofanes, Parmenides eta baita Enpedokles ere. Are eta gehiago, Parmenidesez hasiera eta Lukrezioaren liburuaren hasieraren artean antzekotasunak topatu ditzakegu. Izan ere, filosofo klasiko honek Jainkosa baten hitzez baliatzen da bere teoriari hasiera emateko:

Nire gogoak ahal bezain urrun eraman ohi nauten behorak nire ondoan zebiltzan Jainkosaren oso bide ospetsura hurbildu nindutenean (...) Eta Jainkosak harrera argia egin zidan (...) SEXTO ENPIRIKO, Matematikariaren kontra, VII 111 (B 1)

Arestian aurkeztutako pasartearen antzekoa dela gure autorearen hasiera esan dezakegu, bera ere Jainkosa bati zuzentzen baitzaio: Venus jainkosari hain zuzen ere.

Engendrador de los Enéadas, placer de hombres y dioses, nutricia Venus, que bajo las conclaciones deslizantes del cielo pueblas el mar portavíos, pueblas las tierras fructificantes (...) (I, 1-5)

Formaren aldetik poema honek autore grekoen obrekin izan ditzakeen antzekotasunez gain eta, Epikuroren eraginaz aparte doktrinari dagokionean, filosofo fisikoaren teoria jaso egin zuen ere gure autore (bai presokratikoak eta baita presokratikoen ondoren etorritako tradizio materialista edo fisikarena). Kasu batzuetan, tradizio grekoak sortutako teoriak deuseztatu zituen eta, bestetan, honakoa bereganatu eta garatu zuen.

Por tal razón, quienes pensaron que la materia de los seres es el fuego, y que la totalidad está hecha sólo de fuego, muy mucho parece que ha desviado de una razón bien fundada (I, 634-637) Pues pregunto yo por qué las cosas alcanzarían a ser tan variadas, es que se han producido a partir de un mismo y simple fuego (I, 644-646)

Pasarte honetan, Heraklitoren doktrinari ere egiten dio aurre, izan ere, fisikari garrantzia eskaini zion filosofo honek, unibertsoaren oinarri-oinarrian printzipio material bat aldarrikatu zuen, filosofo presokratikoen antzera (sua).

Por consiguiente, quienes pensaron que la materia de los seres es el fuego y que a partir del fuego puede constituirse el total, y quienesquiera que pensaron que el aire constituía el principio para el engendramiento de los seres o que el agua por sí sola iba plasmando los seres o que la tierra producía todo y podría transformarse en las sustancias de todos los seres, de todas parece que mucho se alejan ellos de la verdad (I, 705-711)

Añade también aquellos que reduplican los primordios de los seres juntando el aire con el fuego y la tierra con el agua, y los que creen que de cuatro realidades, - el fuego, la tierra, el viento y la lluvia- pueden todas las cosas ir en aumento (I, 710-715)

Hautatu ditugun aurreko bi pasarte hauetan, filosofo joniarren doktrinei egiten die erreferentzia, honakoak deuseztatuz.

Xenofanesez, Parmenidesez eta baita Enpedoklesez hexametroetan konposatu baitzituzten euren bertsoak, gure autoreak bezala. Hurrengo ataletan aztertuko dugun moduan, autore latindarraren obran, Leuzipo eta Demokritoren eragina oso nabaria dela baieztatu dezakegu.

La que él llama “homoemería de los seres” es venir a decir que huesos y tripas se engendran a partir de huesos y tripas pequeñitos y diminutos, que la sangre se produce al unirse unas con otras muchas gotas de sangre, que puede de migajas de oro formarse oro y de tierra menuda fraguar la tierra, que de los fuegos viene el fuego y de las aguas el agua, y las demás cosas las va conformando y pensando por un procedimiento parecido. Y pese a todo no admite bajo ningún concepto que en las cosas se dé el vacío y un límite en la partición de los cuerpos (I, 835-840)

Anaxagorasen teoriari ere luzatzen dio kritika bat, aurreko pasartearen ageri den moduan.

En fin, puesto que los miembros mayores del mundo con tanto empeño luchan entre sí, lanzados a una guerra nada piadosa, ¿no ves que se les podrá conceder algún final en su larga batalla, digamos cuando el sol con todos sus ardores se beba todas las aguas y acabe triunfando? (V,380-384)

Heraklitoren teoriaren eragina ikus dezakegu, gatazka aipatzen duelako. Dena den, Heraklitok ez bezala, gatazkaren baretzea deskribatzen du (autore klasiko hauen arabera, gatazka, aurkakotasuna bera da batasunaren indarra)

○ Poesiaren garrantzia: helburu pedagogikoa

Greziako garai arkaikoan literatura formarik ohikoena poesia bazen ere, Grezia klasikoan, mitosetik logosera igaro ostean, hizkuntza filosofikoaren “arrazionaltasuna” gailendu zitzaion poemak zekarren “mistizismoari”. Hasi ziren arbuatzen poesia, estetikari gehiegi erreparatzen ziolakoan, fikzio hutsa baino ez zela leporatuz, benetako errealtatetik aldentzen gintuena. Platonen bezalako kritikak eztabaida honen adibide dira edo, baita Aristotelesen tesiak ere, alegia, poesiaren helburua errealtatea imitatzea da eta ez didaktikoa izatea. Horregatik, Platonen Errepublikan defendatzen den moduan, poesia beti egon behar da arrazionalitatearen menpe, hau da, filosofiaren menpe, irakurleak bide okerretik ezjakintasunera eramanez ez ditzan.

Dena den, niri zalantzak sortzen zaizkit aurreko paragrafoan aurkeztutako tesia defendatzerako orduan. Izan ere, Enpedoklesez, Parmenidesez kasu, metroan idatzi bazuten ere, Platonek filosofo gisa hartuko zituela ausartzen naiz esatera, euren poesia ikuspuntu arrazional batetik baitzegoen eraikita. Horregatik, esango nuke, Platonen kritika ez doala formaren aldetik, edukiaren aldetik baizik eta, honenbestez, arestian aipaturiko bereizketa puntu batean, arbitrarioegia suertatzen zaigula esango nuke. Platonek ez luke onartuko Lukrezioren poesia nahiz eta eduki filosofikoak landu? Honekin ez dut ukatu nahi Lukrezioren orijinaltasuna, baina bai mahai gaineratu askotan, gu izan garela testuinguru horretan existitzen ez ziren bereizketen sortzaile, garaiko aberastasuna gutxituz.

Jarraitzearen gure autorearen helburuarekin esan dezakegu, Lukreziok, Epikurok bere maisuak egin ez zuen bezala, poesiak izan dezakeen potentzialitate hezitzailea aldarrikatu zuela, eduki mardulak arinagoak eta ulergarriagoak egite aldera tresna baliagarria zela defendatuz. Izan ere, Epikurok zera esaten zuen: “jakintsua poesiaren inguruan bere iritzia emateko gai izango da baina, praktikan, ez du poesia egingo”. Poesia, hizkuntza jaso eta konplexuegi bat daukan heinean, oztopo bat zela egiarentzat ulertzen zuen baina, baita arimarentzat ere, pasioak bultzatzen zituen aldetik. Halere, esan bezala, Lukreziok poesia edukiaren mesedetan jarri zuen eta, laburki esatearren, gatz-gatza zen prosari, goxo

pixka bat emanaz erakargarriagoa bihurtu izan zuen. Bere obraren pasarte honetan, oso erraz ulertzen dugu gure autorearen borondatea:

Da gusto acercarse y beber en manantiales que nadie tocó y da gusto cortar flores frescas y hacerle una llamativa corona a mi cabeza con aquellas que las Musas nunca antes tomaron para cubrir las sienas de nadie; en primer lugar porque mis enseñanzas tratan de cuestiones graves y se encaminan a desatarle al espíritu los estrechos nudos de la religión; luego, porque en tema tan opaco entono versos luminosos y los voy empapando todos ellos de gracia poética. (IV, 3- 10).

○ Poemaren antolamendua (helburu pedagogikoaren mesedetan)

7409 hexametro daktiloz osaturik dago *Gauzen izaeraz* izeneko obra hau.

Dena den, nahiz eta behin eta berriz azpimarratu nahi izan dugun Epikuroren eragina honako obra honetan, antolamenduari dagokionean, modu ezberdin batean organizatu dutela bi autore hauek esan beharra dago. Izan ere, Lukreziok hiru zatitan banatu beharrean bere lana (kosmogonia, gizakion izaera eta ezagutza), sei ataletan zatitzen du honakoa, betiere mundua errealitate objektibo gisa hartuz:

Lehenengo bi atalak atomo eta unibertsoaren osotasunari buruzkoak dira. Hurrengo bietan, gizakiaren inguruko azterketa psikofisikoa burutzen du autoreak, arima eta gogoaren papera erdigunean jarriz eta, azkenik, bostgarren eta seigarren atalek kosmogonia bat aurkezten digute, zibilizazioaren sorrera zein honen garapenetik igaroz, munduaren suntsipenera arte. Hauetan guztietan eskema berbera jarraitzen duela ikus genezake, denak amaitzen baitira, nolabait esatearren, modu zorigaizto batean: lehenengo biak munduaren amaiera, hurrengo biak maitasunak dakarren mina eta, azkenik, Atenaseko izurritea. Bestetik, Estructura tripartita hau erabiltzeak lehenengo, hirugarren eta bostgarren atalek garrantzi handiagoa hartzea ekarri zuen.

Esan beharra dago zalantza ugari egon direla liburuaren osotasunaren inguruan. Ez dira autore gutxi izan defendatu dutenak amaiera galdu egin dela. Honakoek defendatzen dute *sphragisa* ez denez agertzen bukaerako atalean, ezin dugula amaitutzat eman Lukrezioren obra. Dena den, ez daukagu baliabiderik hain azterketa sakona burutzeko eta, horregatik, zalantza hau lanera ekartzera mugatuko gara.

Beste alde batetik, aurreko ataletan azpimarraturiko Lukrezioren paper didaktikoa poemaren antolamenduan bera ikus dezakegu. Izan ere, atal bakoitzaren hasieran, aurkeztutako guztiaren laburpen moduko bat egiten baitu, ondoren azalduko duenari argitasun handiago bat eskainiz. Nire ustetan honako hau argiago ikusten da obraren ondorengo atalak gogora ekarriz:

Pues por tí me pondré a disertar sobre el más alto fundamento del cielo y los dioses, e iré desvelando los primordios de los seres, de d'onde la naturaleza produce todos los seres y los agranda y sustenta, y adónde a su vez esa misma naturaleza los reduce al desbaratarlos. (I 52-57)

A estas nosotros solemos llamarlas, al dar una explicación de la realidad, "simientes de series", y denominarlas a esas mismas también "cuerpos primarios", porque de esos cuerpos primarios derivan todos.

Estas cosas las irás reconociendo si te dejas guiar por esta pequeña obrilla, pues lo uno irá aclarando lo otro sin que la noche oscura de descamine y no puedas descubrir las ultimidades de la naturaleza: así un tema irá dando luz a otros. (I, 1112, 1117)

Y ahora, vamos, expondré con qué movimiento los cuerpos genésicos de la materia engendran seres diversos y desbaratan los engendrados, bajó que impulso están obligados a

hacerlo y qué movilidad se les ha otorgado para cruzar a través del gran vacío: procura tú entregarte a mis palabras (II, 60-65)

Después de estas cuestiones parece que tengo en mis versos que aclarar la naturaleza del espíritu y la del alma, y echar fuera de cabeza al consabido miedo del Aqueronte que de raíz altera la vida humana manchándolo todo desde su asiento con el negror de la muerte, sin dejar que haya ningún gozo limpio y puro (III, 35- 40)

Y una vez que ya he mostrado cuál es la naturaleza del espíritu y por qué medios se arregla con el cuerpo y toma fuerza, o de qué modo se desbarata y convierte en primordios, voy ahora a empezar contándote algo que tiene muchísimo que ver con estos temas, que están ahí esos que llamamos “representaciones de seres”, que como pellejos desprendidos de la superficie corpórea de los seres revolotean acá y allá entre las brisas, y lo mismo espantan nuestros ánimos saliéndonos al paso en vela como en sueños.... (IV 25-30)

Lo que ahora viene acá nos lo trae el orden de la explicación, de modo que tengo que explicar que el mundo está hecho de cuerpo mortal y es capaz a la vez de nacimiento, y de qué modos la agrupación aquella de materia cimentó tierra, cielo, mar, estrellas, sol y bola de la luna, qué animales ahora surgieron en la tierra y cuáles en ningún momento tuvieron nacimiento, o cómo la raza humana al modificarse el habla empezó a vivir y relacionarse mediante nombres de cosas y de qué manera se fue metiendo en los corazones aquel miedo a los dioses que en las tierras del orbe por santos respeta templos, lagos, bosques, altares e imágenes de dioses; además voy a explicar los recorridos del sol y rutas de la luna (...) o creamos que dan sus vueltas según alguna razón divina (V, 63- 81)

Y una vez que ya he enseñado que las bóvedas del mundo son mortales (y) que el cielo está hecho de cuerpo nacedero, y que cualesquiera cosas que en él nacen o es forzoso que nazcan, las más se desbaratan, entérate ahora de las otras cosas que quedan, pues subir a la vez al noble carro cómo los lanza la cólera de los vientos, cómo al revés todas las cosas que se derrumban quedan luego puestas en una paz amigable, (VI, 40- 59) Hay que cantar qué hacen las tempestades y rayos esplendorosos y a partir de qué causa en particular se mueven (...) (VI, 83-83)

Esan bezala, atal berri bakoitzean, ondoren azalduko duenaren berri ematen dio irakurleari, askotan ere, ezarritako guztia laburbilduz.

Halaber, gorago aipatu dugun moduan, poema osoan zehar bizitza zoriontsu bat eramatera gonbidatzen gaitu: heriotzari beldurrik ez diezaiozun izan, maitasunari uko egin diezaiozun eta, baita, jainkoak euren benetako munduan koka ditzagun, hau da, ez gure egunerokotasunean, ez guri eragingo baligute bezala. Hau guztia dela eta, fisiologia eta kosmologiaren atzetik, helburu etiko bat ate joka daukagula esan dezakegu.

○ Liburuaren irakaspenak: doktrina

Atal honen gorpuzterako, Aldo Mieliren Prefazioan oinarritu naiz, Erromatar tradizioa eta, batez ere, eskuartearen daukagun autorea ulertu nahi baldin baditugu, uste dudalako ezinbestekoa zaigula tradizio grekoaren oinarri minimo batzuk geureganatzea. Ariketa honi begira, aipaturiko prefazioa tresna oso erabilgarria suertatu zait eta, honetaz baliatuz, Epikurismoaren eragina Lukrezioaren doktrinan azaltzeari ekin nahiko nioke.

Lehenik eta behin, filosofo presokratikoak etorri behar zaizkigu burura. Doktrina eta eskola ugari badira ere (jonikoak, eleatarrak, atomistak...), hemen jaso ezin ditugunak, ideia sinple-sinple bat geure buruetan gordetzea nahiko nuke: filosofo hauek Naturaren (Physis) eta honen atzean indarrean

dauden legeen ezagutza. Badakigu euren ondorio filosofikoak, askotan, intuizioak betetzen zituela eta, ezin ditugula espekulazioaren eskutik askatu honakoak.

Physiaren zentzua azaltzeko, presokratiko askok jo zuten oinarrizko elementu materialetara, zeinetatik beste sustantzia guztiak eratzen diren (ura, sua, airea, lurra edota, apeirona). Dena den, ondorengoek deuseztatu egin zuten sinplifikazio hau eta, elementu ugariagori erreparatu zioten: Epedoklesen lau elementuak; Anaxagoraren sustantzia infinituak eta, Leuzipo eta Demokritoren teoria atomikoa. Epikurok ere, tradizioa gainditu egin zuen eta, Lukreziok, aurreko autore hauek esandakoa baino pausu bat haratago kokatu zuen bere burua, eraginak aztertu ditugun atalean finkatu dugun moduan.

Epikureismoarekin jarraituz, orain arte behin eta berriz ezarri bezala, hiru tesi dauzkagu doktrina honen muina laburbiltzen dutenak: fisika doktrinaren oinarria da; logika doktrinaren bitartekoa da eta, azkenik, moralak edo etika, helburua. Helburu hori, halaber, arimaren lasaitasuna (ataraxia) da, aretearen lanketarekin, ezjakintasunetik ahalik eta gehien aldentuz eta, batez ere, Jainkoekiko beldurra dakarren edozein superstizio alboratuz.

Lukreziok *Gauzen izaeraz* izeneko obran aurkezten digun doktrinaren puntu batzuk finkatu ditugu orain arte, era oso agerikoan eta gehiegi sakondu gabe izan bada ere. Uste dut, sakontze bat beharrezkoa zaigula benetan argi gera dadin gure autoreak defendatzen zuena eta, hori lortzeko, Lukrezioren bertsotan bertan murgildu behar garelakoan nago. Hasiera batean nire helburua bazen ere lan guztia sakontze honetan zentratzea, orain arte gerturatu dugun informazio guztia ere garrantzitsua iruditu zait benetan autorea ondo uler dezagun.

Hau guztia esanda, orain dagokigu bertsoen iruzkin moduko bat, betiere orain arte esandakoa islatzen duten zatiei erreparatuz, obraren adibideekin argiagoa gera dadin. Zentzu horretan, meteorologia, zibilizazioaren garapena edo obran jorratzen den bestelako gairen garrantzia kendu gabe, hauek ez dira izango gure azterketaren erdigune. Orain arte jarraitu dugun logikaren harira, Lukreziok eta aurreko presokratikoen artean zenbait antzekotasun finkatu ditugu eta, hauek islatzen duten pasarteei joko dugu hemendik aurrera.

Azpimarratu dugun moduan, Lukrezioren obra irakurri behar dugu Etikaren betaurrekoekin, hau da, kokatu behar dugu Epikuro handiaren helburuaren pean: arimaren lasaitasuna lortu edozein ezinegon baztertuz. Beldur horien artean, bi dira garrantzitsuenak, biak kutsu erlijiosoak edo mitikoa dutelarik: jainkoei beldurra eta heriotzari beldurra. Hori kontuan izanik, Lukrezioren helburua izango da uste hauek dekonstruitzea, gizakia beldurrik dakarren askatasun ezetik askatzeko. Obraren pasarte hauek islatzen dute hoberen aipatu berri dugun tesia, hau da, jainkoei beldurrik ez:

Y es que es forzoso que por sí solo, el hecho de ser dioses, en la mayor paz, disfrute de una existencia sin muerte, apartado de nuestras cosas y separado lejos; porque libre de todo dolor, libre de pruebas, capaz por sí solo gracias a sus recursos, en nada necesitado de nosotros, ni se deja ganar por méritos favores ni afectar por enfados. (I, 43-50)

Y es que en cuanto tu explicación, surgida de una mente divina, empezó a proclamar la naturaleza de los seres, huyen los terrores del alma, se abren las murallas del mundo, veo a través del vacío todo hacerse las cosas; se dejan ver la fuerza divina y sus tranquilas mansiones (III 13, 15)

Pues quienes tienen bien aprendido que los dioses llevan una vida despreocupada, si pese a ello entretanto se extrañan de cómo puede ser que cada cosa se haga, sobre todo ante aquellas que sobre nuestras cabezas en las religiones del éter se divisan, se vuelven otra vez a las antiguas religiones y se asignan unos duros amos que creen los pobres que lo pueden todo, por desconocer ellos qué es lo que puede darse y lo que no, según qué fundamento, en fin, cada ser tiene una capacidad restringida y unas lindes bien asentadas (V, 81- 90)

No debes creer asimismo eso de que los dioses tengan su santa casa en alguna parte del mundo; porque la naturaleza de los dioses, sutil y muy alejada de nuestros sentidos, a duras penas con la inteligencia del alma se advierte; (V 145-150)

Dena den, kontuan izan behar dugu kritika Estatuaren eskutik bultzatutako erlijioaren aurkakoa izan zela. Esaldi ezin laburrago honekin jasoko dugu ideia hau:

¡Maldades tan grandes fue capaz de promover la religión! (I, 100-101)

Bestetik, bostgarren liburuan kosmogonia bat burutzen duenean, zibilizazioaren sorrera aurkezten digu eta, horrekin batera ere, baita Erljioaren sorkuntza.

Ahora, qué causa popularizó genios y deidades por grandes naciones y llenó de altares las ciudades y se ocupó de que ese comprometieran en las sagradas solemnidades que hoy florecen sembradas en grandes repúblicas y territorios, de dónde además hasta hoy se les quedó metido a los mortales ese espanto que en todas las tierras del orbe levanta nuevos templos a los dioses, frecuentarlos obliga en días de fiesta, razón de ello con palabras no resulta tan difícil (V,160-167)

Y es que, en efecto, ya entonces las generaciones de mortales veían en su imaginación durante el día rostros maravillosos de dioses, y más todavía durante el sueño, con asombroso aumento de su talla: les atribuían, claro es, sensibilidad, debido a que parecían mover sus cuerpos, pronunciar frases altivas conforme a sus singulares rostros y grandes fuerzas, y les atribuían vida eterna, porque ese rostro una y otra vez sin parar les llegaba (V, 1168-1175)

Orain arte esandakoari jarraiki, heriotzari beldurra izateak lekuri ez daukala Physicaren legeak ezagutzen dituen pertsona batentzat ere baieztatzen du gure autoreak. Ideia hau, ondorengo pasarte bidez laburbiltzea gustatuko litzaidake:

Tú, digo, en cualquier momento, derrotado por las palabras terroríficas de los sacerdotes, querrás desertar de nuestro bando. (I 102-104)

Pues el que los hombres a menudo anden diciendo que hay que temer a las enfermedades y a una vida de infamia mas que al Tártaro tras la muerte (...) (III, 41- 43)

Adondequiera que sin embargo llegan, invocan en su desgracia a las ánimas, sacrifican negras reses y las mandan abajo a los manes santos y, en las circunstancias amargas, con mayor empeño vuelven los ojos a la religión (III, 50-55)

Hala eta guztiz ere, gure Lukreziok arimari ezinegona sortu diezaiokeen beste faktore bat identifikatzen du bere obran, nahiz eta aurrekoak bezala, erdigunekoa ez izan. Honakoa maitasunak dakarren arimaren lasaitasun eza da, liburuaren laugarren atalaren amaiera aldera aurkezten diguna, hain zuzen ere. Esaldi hauek islatzen dute honakoa:

Nuestra Venus es ésa, de ahí nuestro Amor toma nombre; gota de amor y dulzura de ahí en el pecho comienza a derramarse, viniendo tras ella fría tristeza; y es que si ausente está lo que amas, imágenes hay prontas y al oído su nombre dulce resuena. (IV 1059- 1061)

Mas conviene espantar tal imagen, desviar de uno mismo ese alimento de amores, volver a otra parte la mente y en un cuerpo arrojar el humor agrupado, no retenerlo, con miras a un solo y único amante, y procurarse así inevitable dolor y tristeza; pues la llaga se aviva y perdura con darle alimento, día a día la rabia se hincha y se agrava la pena, si es que no borras la herida primera con golpes recientes y no la curas aún fresca, tú, errante entre amores errantes, o si no puedes desviar otra arte el empuje del alma (IV 1061- 1071)

Añade el perder ellos sus fuerzas y morir de fatiga; añade el pasar la vida a las órdenes de otro; andan achacosas las obligaciones (...) (IV, 1120-1124)

Incluso en el amor correspondido y extremadamente favorable hallamos estos males, mientras que en uno contrario y desesperado, los que podrías descubrir con los ojos cerrados, son incontables (IV 1141-1144)

Orain arte esandako guztia ez du gure Lukreziok hain modu abstraktuan babesten. Aitzitik, Physicara jo eta Naturaren legeen bitartez, bere helburu etikoa funtsatzen du. Hortaz, esan dugun moduan, Physica ezagutzea lasaitasuna lortzeko tresna bihurtzen da eta, soilik elementu materialei erreparatuz, inolako superstiziorik gabe, askatuko gara beldurraz eta ezinegonaz. Ondorengo paragrafoetan, nahiz eta ez dugun gehiegi sakonduko Lukrezioren Physican, aurrerago aztertu ditugun beldurak uxatzeko zelan erabiltzen dituen azterketa zientifikoaren baliabideak analizatuko dugu.

Puesto que se desconoce cuál es la naturaleza del alma, si nace o, por el contrario, se les transmite a los nacientes, si perece a la vez que nosotros deshecha con la muerte o va a ver las tinieblas de Orco... (I 111-114)

Y es que en cuanto tu explicación, surgida de una mente divina, empezó a proclamar la naturaleza de los seres, huyen los terrores del alma, se abren las murallas del mundo, veo a través del vacío todo hacerse las cosas; se dejan ver la fuerza divina y sus tranquilas mansiones (III 13, 15)

Hau da, heriotzari beldurra ez izateko, beharrezkoa dugu gorputzaren anatomia ondo ezagutzea.

Porque ese miedo y esas tinieblas del espíritu es menester que los despejen no los rayos del sol ni los dardos luminosos del día sino la contemplación y doctrina de la naturaleza (I, 146-149)

Sino que es grato ver de qué males uno se libra (...) desde donde puedas mirara los otros de abajo cómo van de acá para allá buscando un camino a su vida sin rumbo, cómo compiten en talento y se enfrentan por renombre, esforzándose noche y día entre altos favores, en llegar a encumbrarse con las mayores riquezas y ganar poder (II, 5-11)

Y por último: todos hemos nacido de semilla celestial todos tenemos el mismo Padre (...) Desanda el camino a su ve lo que de tierra fue antes, para dar en lo terreno, y lo que salió de las regiones del éter, de nuevo os ámbitos del cielo lo recogen a su regreso; y la muerte no extermina las cosas de manera que destruya los cuerpos de materia sino que desbarata su agrupamiento (II 990-1000)

Si de ahí lo que bien aprendas en tí guardas, la naturaleza aparece libre al punto, desembarazada de señores orgullosos, haciéndolo todo ella sola por su cuenta sin participación de dioses. (II, 1089- 1094)

Esan dugun moduan, jainkoak ez ditu kokatzen gure parametroen barruan, ezta gure munduan parte hartzen ere. Zentzu horretan, ez daukate harremanik zuzenik gurekin, hortaz, lekurik gabe geratzen da haiei izan diezaiokegun beldurra. Zientzia eta ikerketa logikoa lasaitasunaren menpe daude.

Hemendik aurrera, gizakiaren inguruan burutzen duen azterketa psikofisikoaren zenbait pasarte ekarriko ditugu mahai gainera, argitzen baitigute zelan munduaren nondik norakoa ezagutzeak aska gaitzakeen edozein beldurretatik. Atal honetan mugatuko gara informazio oinarrizko bat luzatzera baina aurrerago, tesi hauen inguruan zenbait hausnarketa burutzea gustatuko litzaidake.

Hay que observar al individuo y en la contrariedad conocer quién es, pues entonces por fin de lo hondo de su pecho se sonsaca la voz de la verdad (y) allí se arranca la máscara de su rostro (III 55- 59)

Afirmo ahora que espíritu y alma se mantienen trabados uno y otra, y entre los dos hacen una sola naturaleza (III, 135-137). Esta misma explicación muestra que la naturaleza del espíritu y el alma es corporal (III, 160-163)

Aurreko pasarte, nire ustetan, bere materialismoaren laburpen oso adierazgarria da. Izan ere, dena materiala bada, arima eta izpiritua barne (atomoz osaturikoa gainera), ezin da ezer hilezkorra izan eta, horrela, deuseztatzen egiten dira erlijio klasikoak bultzaturiko usteak eta beldurrak (eta errituak)

Esta sustancia, en efecto, está sostenida por el cuerpo todo, y ella es justamente la protectora del cuerpo y causa de su integridad; pues están bien sujetos la una y el otro por raíces comunes y no parece que sin su destrucción puedan desgajarse (III 321-325).

Ea pues, para que puedas conocer que espíritus y almas livianas en los animales son naceros y mortales (III, 415-417)

Puesto que he demostrado que ella en su levedad está formada de cuerpos menudos (...) convéncete de que el alma se desparrama y mucho más rápida y velozmente perece y se descompone (en) cuerpos primeros en cuanto se arranca y aparta de los miembros del hombre; porque es que el cuerpo, que viene a ser como su recipiente (...) (III, 425- 434)

Arima atomoz osaturik dago, beraz, materiala da. Eta, hilkorra, noski.

El espíritu padece duras penas, aflicción y miedo: debe por tanto tomar parte en la muerte (III, 460-462)

El espíritu no puede por sí solo darse sin el cuerpo y el propio hombre, pues este parece ser una suerte de recipiente de aquel alguna otra cosa que tú quieras imaginar unida a él, toda vez que el cuerpo en una trabazón se le junta (III, 550- 553)

Sin el cuerpo, ya se sabe, no puede ella sola por su cuenta la sustancia del espíritu producir los movimientos vitales (III, 558-560)

Arima bakarrik bizi daiteke gorputz batekin loturik badago. Lotura hau eman ezean, hiltzen da eta ez du ezer sentituko.

Y puesto que sentimos que en el cuerpo entero reside la sensibilidad vital y vemos que todo entero es animado, si pronto alguna fuerza con rápido golpe lo cortara por la mitad de manera que separara las dos partes por completo, también sin duda la fuerza del alma, desunida y rajada a la vez que el cuerpo se partirá (III, 634- 939)

Así pues, la que hubo antes es preciso admitir que pereció y que ha nacido ahora la que ahora está ahí (III, 676-679)

Esan bezala, bakarrik bizi daiteke gorputzarekin. Hau gabe ez da, ez da existitzen. Honekin jaio eta hiltzen da, beraz.

Pues está claro que unir lo mortal con lo eterno y pensar que puedan tener a la par sensación e intercambiar tareas es desvariar (III 800-803)

Así pues la muerte no es nada ni nada tiene que ver con nosotros, una vez que se considera mortal la sustancia del espíritu, y lo mismo que en el tiempo pasado ninguna pena sentimos (...) (III, 830- 834)

Pasarte hau oso adierazgarria egiten zait batez ere, heriotzarekiko beldurra deuseztatzeari begira. Hau da, hain zuzen, gizakiek jakin behar dutena: heriotzaren ostean, ez direla ezer, jaio aurretik zirenaren berdina dira: ezereza. Eta ezerezak sentitzen ez duen heinean, ez da zorigaitztoa izango.

Y por eso, cuando veas a un individuo protestar por tener después de la muerte o bien que pudrirse cuando lo entierren o bien desaparecer entre llamas o quijadas de fieras, cabe suponer que esto no es sincero su acento y una cierta espina invisible sigue por dentro de su pecho, por más que diga creer que en la muerte no seguirá teniendo sensibilidad alguna (III, 869- 875)

Orain arte esan bezala, heriotzari beldurra izatea gizakion irudimenak sortu du.

En fin, si Naturaleza de pronto echara a hablar y se pusiera a reñirnos a alguno de nosotros de esta manera: ¿Qué accidente tan grave te ocurre, mortal, para dejarte llevar tan desconsideradamente por penoso duelo? ¿Cómo es que lloras y lamentas a la muerte? (III, 930-935)

Si pudieran los hombres, lo mismo que parecen sentir que tienen asentado en el alma un peso que con su carga les cansa, conocer también por qué causas ello sucede y de dónde su pecho se forma esa suerte de enorme bloque dañoso, no llevarían una vida tal como ahora las más de las veces vemos que no sabe cada cual qué hacer consigo mismo y anda buscando cambiar constantemente de sitio a ver si puede echar a tierra su carga (III, 1050- 1057)

Gizakiek ez daukate bakerik eta ezinegonaren preso dira. Honekin, hain zuzen, amaitu nahi du gure autoreak.

Cuando a menudo se quedan suspensos con las almas despavoridas y dejan sus corazones abatidos con el miedo a los dioses y los oprimen tirados contra el suelo, porque la ignorancia de las causas los obliga a poner sus negocios bajo el mando de los dioses y cederlos a ellos la soberanía, pues las causas de tales acciones de ninguna manera aciertan a verlas y piensan que suceden por gracia divina (VI, 51- 57)

Pasarte hau oso esanguratsua dela uste dut, oso argi adierazten baitu orain arte defendatu duguna: munduaren funtzionamendua ez ulertzeak, beldurrak izatera garamatza, gure ulermenetik at dagoen hori jainkoei egokituz. Zientzia edo jakintza falta dela eta, datoz gure arazo guztiak, nolabait esatearren.

○ Hausnarketa: zer ikasi dut Lukreziorekin?

Orain arte, Lukrezioren obraren irakaspen etikoari baino ez diogu erreparatu, alegia, gaitzetik askatu eta izpiritua orekatzeko eta grinak kontrolpean izatearen doktrina. Esandako guztia alboratu gabe, pertsonalki, obran bertan unibertsoaren inguruan burutzen duen azterketa materiala da gehien harritu nauena eta ez dut lan hau amaitu nahi horri pare bat buelta eman gabe. Izan ere, niri bizitzako urte honi materialismoan sakontzearen helburua jarri diot (maila pertsonal batean, noski). Horretarako, betiko autoreetara jotzea zen nire asmoa, hala nola, Hegel, Engels eta Marx... Baina materialismoak berak planteatzen duen bezalaxe, historia ulertu gabe ezin dugu ulertu materia bera, hortaz, materialismoaren doktrinaren historiaren inguruan nuen gabezia hori bete nahi izan dut Lukrezioren lanaren bidez. Dena den, zintzoki aitortu behar dut ez dakidala zein puntura arte erdietsi dudan hasiera batean nire buruari egotzitako helburua, izan ere, oraindik ere liburua eta baita liburuaren inguruan egindako iruzkin asko irakurri ostean, zalantzak baino ez ditudala autore honen metafisikari dagokionean iruditzen baitzait. Agian horregatik egin zait errazago Lukrezioren helburu etikoa aurkeztea. Zalantzak zalantza, ukaezina da autore honen garrantzia, alde batetik, tradizio zientifikoa eta materialista barnebildu baitzituen bere obran egungo materialismoaren lan lerroak, modu batean, finkatuz eta, bestetik, esan moduan, azterketa materialista kokatzen duelako helburu etiko baten pean. Bigarren hau oso deigarria suertatzen zait niri ere gustatuko litzaidakeelako, noizbait, azterketa zientifikoak gure buruak askatzea egun pairatzen ditugun zapalkuntzetatik.

Non ikusi dezakegu doktrina materialistaren aztarna? Zergatik hartu ohi da Lukrezio autore materialista bezala? Ondoren aipatuko ditugun tesiak aurreko atalean azaldu ditugu, baina gehiago sakontzea hauetan gustatuko litzaidake.

Lehenik eta behin, liburuan daukagun esaldirik adierazgarriena honakoa da: “ezer ez dela jaiotzen ezerezetik”, alegia, munduan gertatzen den edozein fenomenok kausa materiala dauka. Zientzia, materialen bertan arakatzea izango da, gertakariak ulertzeko tresna: ezin dugu modu idealista batean egin azterketa zientifiko bat: ideiek ez daukate ahalmenik ezer sortzeko, materia bera da hasiera eta amaiera. Modu berean, esaldi hau erabat loturik doa unibertsoa modu ordenatu batean ulertzearekin, hots, gauzak ezerezetik aterako balira, kausa produktore hori mugagabea izango litzateke eta, orduan, dena edozerretik jaioko litzateke. Mundua zentzurik gabekoa izango litzateke; baina, ostera, munduan bertan printzipio axiomatiko batzuk daude, kontrolatzen dutenak munduaren jarioa. Nire ustez, honako ikuspegiak materialismoa modu mekanizista batean ulertzea dakar oraindik nahiko urrun dagoena materialismo modernotik, dialektikoa, alegia. Dena den, pentsatu behar dugu zein puntura arte Lukreziok (Epikurok, kasu honetan, bere teoria baita) burututako azterketa izan zen erabakigarria bere testuinguruan: azterketa arrazionalaren aldeko manifestua da, bakarrik zientziak askatu gaitzakeelako suposizioak gure buruen gainean ezarritako kateetatik. Ulergarria da zergatik ez zen ondo hartua izan.

Bigarrenik, ezer ez baldin bada jaiotzen ezerezetik, ezer ez da hiltzen ere, alegia: beti daude printzipio batzuk (atomoak) euren artean elkartzen direnak, sortzen dituztenak izaki materialak. Kontuan hartu behar dugu gorpu bat hiltzen denean, printzipio horiek dirautela eta beste batzuekin elkartu ostean, beste izaki bat osatuko dutela. Printzipio hauek ikusezinak badira ere, materialak dira eta beraz, errealak: bustita dagoen oihal bat lehortu egiten da, beroak dituen partikulak tarteko direlarik. Gauza bera soinuarekin, hotza, likidoarekin... Munduan dagoen oro, printzipio horietaz osaturik dago. Bestetik, printzipio horiek zatiezinak dira, modu mugagabe batean zatituko balira ezinezkoa izango baitzitekeen berrosatzea eta, gainera, infinitura zatitzeak zailduko luke munduan aurkitzen den ordena eta erregulartasuna

Honetatik guztitik zera ondorioztatzen du gure Lukreziok: munduan materia (atomo material horiek osaturikoa) eta hutsaz gain, ez dago beste ezer. Ez dut berriro errepikatu nahi honek izan zuen garrantzia garai horretan zeuden superstizioak deuseztatze aldera, baina benetan aitortu behar dut oso lan aparta iruditzen zaidala tradizio materialistak egindakoa. Garaikoa aztertu zientifikoki eta zientziarekin bat ez datorrena ukatu.

Atomoei buruz informazio gehiago eskaintzen digu Lukreziok, hala nola, euren tamaina, forma eta baita ere mugimenduari dagokienean. Hala eta guztiz ere, ez da nire asmoa aurkeztea informazio guztia, azterketa gogoetatsu bat ahalbidetu dezakeen informazioa mahai gaineratu baizik.

Beste alde batetik, batez ere hirugarren atalean agertutako tesi bat gogora ekarri nahiko nuke, nire ustez, oso adierazgarria baita ulertzeko Lukreziok zer argudio erabili zuen dualismoari aurre egiteko eta, bide batez, indartzen ari zen tradizio erlijiosoari esango nuke nik. Aurreko atalean tesi honen zantzuak aurkeztu ditugu, baina kasu honetan, horren inguruan hausnartu nahiko nuke.

Tradizioari jarraituz, gizakia bi “substantziaz” zegoen osaturik: arima eta gorputza, lehenengoa inmateriala eta bestea, noski, materiala. Baina, honen aurrean, Lukreziok gogoa (espiritua) eta arima bereizten ditu, nahiz eta ikusiko dugun moduan, elkar loturik dauden. Eta, noski, biak materialak dira Lukrezioren ustetan.

Honekin guztiarekin bakarrik azpimarratu nahi nuena zera zen: izpiritua eta gogoa bereiztu izanak ekarri zuela gizakion antropologian beste urrats bat ematea. Termino modernoekin esango nuke bereizi zituela gogoa (burmuina) eta bestetik, bizitasuna bera. Baina are eta aurrerakoiago iruditzen zait hauek guztiak printzipio materialetatik (atomo finago eta arinagoetatik) sortzen zirela defendatzea da, defendatzea zelán sentikortasuna printzipio horiek dakarten. Gainera, materiala izateak arima

bera, tradizio luze batek hau metafisika edo ideien mundu horretan kokatu duenean, heriotzaren ondorengo ustezko bizitza kolokan jartzea dakar. Gorputzak ezinezkoa dauka bizi ahal izateko izpiritu hori gabe eta,aldi berean, izpiritu hori ere ezin da bizi gorputzik gabe. Zer trikimailu erabiliko du erlijioak beldurra gure sainetara arte sartzeko, baldin badakigu gure gorputzak ez duela sentikortasunik izango behin hilda dagoenean? Pentsa zer aurrerapauso den hau.

Luze jarrai genezake Lukrezioren obraren inguruan hausnartzen. Adibidez, zentzumenen garrantzia kanpoko informazioa eskuratze aldera, arima osatzen duten atomoen forma... Baina, nire gomendioa da zuzenean autore handi honen obra hartzea eta irakurtzea dela, finean, nik zati batzuk baino ez ditut ulertu obraren konplexutasuna dela eta.

Lan honetan guztian zehar esandakoari amaiera bat emateko, oraindik buruan daukadan zalantza bat gerturatu nahiko nuke: zer dakar jainkoei egiten dien trataerak? Alegia, benetan al da zuzena Lukrezio ateotzat hartzea? Materialista bat izan daiteke fededuna? Honen inguruan hausnartzea gustatuko litzaidake, batez ere, askotan hartu delako Lukrezio ateo bezala edo Jainkoei, besterik gabe, eraso egin nahi zien pertsona bezala eta, hau, nire ustez, Lukrezioren planteamendua erdixka ulertzea da.

Lehenik, ezin dugu ulertu Lukrezio ateo bezala bere obran guztian zehar jainkoak behin eta berriz aipatzen dituenen. Hartu behar ditugu jainkoak tradizio poetikoaren parte ziren pertsonaia moduan eta hala hartzen zituen Lukreziok berak ere: Ifigenia (I 80), Faetonte (V 369), los pobladores del infierno (III 978-1023), Hercules (V 22) y la Gran Madre (II 600). Baina Lukreziok berak badaki hauek guztiak sinbolikoak direla, mitikoak, tradizio baten ondorioa (II 652-657/680).

Berak egiten duena da jainkoei izaera inmaterial hori kentzea. Zoriontsu dira eta ez daude grin eta pasioak gidaturik. Ez dute ere parte hartzen gure bizitzan eta horregatik, erlijioak planteatutako jainkoen irudia okertzat jotzen du. Beste alde batetik, kontuan hartzekoa dela uste dut etimologikoki zein erlijio hitzaren esanahi: dibinitatearekiko dependentzia, horrekiko menpekotasuna eta, hau, ikusi dugun moduan, Lukreziok aurkeztutako bide sotereologikoaren aurka doa.

Aurrerago adierazi dudan moduan, hau da hain zuzen, obratik gehien gustatzen zaidana: azterketa materiala helburu etiko (nire kasuan, politiko) baten pean kokatzea. Nahi nuen argitu nituen zalantzak tradizio materialistaren inguruan eta, nahiz eta oraindik ez dakidan zein puntura arte lortu dudan planteamendua benetan barneratzea, saiatu naiz Lukrezio eta materialismoa lotzen. Hemendik aurrera, niri dagokit aurrera pausuak ematen jarraitzea aurrean dudan ibilbide luze horretan zehar. Gaur txiki bat eman dut. Baina bihar gehiago izango dira. Lortuko dut Lukreziok egin zuen moduan, nire azterketa historiko eta dialektikoa klase menperatuaren mesedetan jartzea, betiere helburu politiko batekin: zientziak argituko digu zein tresnak erabiltzen dituen klase menperatzaileak, gu emakume langile bezala, zapaltzen jarraitzeko. Lukreziok zapalkuntza batetik askatu gintuen (edo saiatu zen) Estatuaren gainegituran dagoen erlijiotik. Gu, oraingoan, azpiegiturara arte joko dugu produkzio sistema geureganatu eta gure mesedetan jarri arte.

- BIBLIOGRAFIA

- Lukrezio, *Gauzen izaeraz*, Klasikoak bilduma